

Arratsalde on guztioi eta eskerrik asko gure borrokara batu zareten guztioi!

Gaur batu gara Aiaraldeko hezkuntza publikoko komuniteko kideok eta hezkuntza publikoa babestera etorritako hainbat lagun. Zergatik atera gara berriro ere kalera hezkuntza publikoaren alde? Gure eskualdean azken hilabeteotan, azken urteotan hobeto esanda, ikastetxe publikoak murrizketa nabarmenak pairatzen ari dira, Zabaleko ikastetxea ixteko arriskua lehenik, Mendiko ikastetxearen lerro baten itxiera, Aretako Eskolan 2 urtekoen gela desagertzean izan da etorkizunera begira horrek dakarren arriskuarekin. Honetaz gain, matrikulazio garaian, Lamuza ikastetxean eta Zabalekon bi familiek ikusi dute zelan hezkuntza publikoa euren aukera izanda itunpeko ikastetxeetara bidali dituzte euren seme-alabak... zerrenda amaigabea dugu hezkuntza publikoak bizi dituen erasoena.

Osasunean, Zaintzetan, pentsioetan sistema publikoa aldarrikatzen dugun moduan Hezkuntza publikoa ere denon helburua izan behar du, gizarte hobea lortu nahi izanez gero. Eskola Publikoa, propioa, euskalduna, berdinzalea eta inklusiboa behar dugu. Gaur egun, segregazio nabarmena dugu gure hezkuntza sisteman, egoera zaugarrian dauden ikasle gehienak eskola publikoan daude. Eta horren aurrean hezkuntza sailaren erantzuna zein izan da? Ikasle batzuk hezkuntza publikotik ateratzea, nora bidaltzeko? Itunpeko ikastetxeetara. Beraz, sare publikoa ahuldu itunpeko ikastetxeak indartzeko, segregazioa bere horretan uzteko.

Eskola publikoa denona eta denontzat izan da beti, da eta izango da, ez dago inor soberan, kontrakoa, gure ikasleek, gure familiek aniztasunak dakarren aberastasuna bizi dute egunero. Segregazioari aurre egiteko eskola publikoak baliabide gehiago behar ditu, gurea Eskola inklusiboa da eta ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza emateko baliabideak behar dira, ez murrizketak.

Azken hilabeteotako murrizketak ez dira kasualitatea, azken bi urteotan legebiltzarrean prestatzen ari den hezkuntza lege berria eta duela urte bete onartutakoa hezkuntza publikoa kinka larrian jartzen du. Horrela adierazi dute Hezkuntza publikoko eragile nagusiek, EHIGE (euskal herriko ikasleen gurasoen elkarte) eta HEIZE (euskal eskola publikoaren zuzendaritza elkartearen federazioa), lege berria ez da oraindik onartu baina dagoeneko hezkuntza sistemaren pribatizazio joera hasi gara pairatzen. Ikasle zaurgarriak ezin dira merkantzia gisa erabili, baliabideak jarri behar dira hezkuntza publikoan aukera berdinak izan dezaten.

Azken 20 urteetako datuak aztertuz gero, argi geratzen da Euskal Eskola Publikoa izan dela esfortzurik handiena egin duena eskola inklusibo eta euskaldunaren bidean. (D ereduan ikasten duten 3 ikasletik 2k sare publikoan ikasten dute.)

Hezkuntza publikoak baditu itxaropenerako motiboak, hezkuntza publikoa osatzen dugunok argi dugu familia guztiontzako hezkuntza sistema publikoa defendatzera kalera aterako garela, murrizketen aurrean eta hezkuntza lege baztertzailen aurrean. Atera ginen Bilbon, Amurrion, Aretan, gaur Laudion eta bihar/etzi ere kalera aterako gara denona eta denontzako eskola publikoa gure hezkuntza sistemaren ardatz izan arte.

Gora euskal eskola publikoa!

Gora Aiaraldeko hezkuntza publikoa!